

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jose Luis Madinabeitia Uriarte

*Oñati,
Gipuzkoa
(1941)*

Aurkibidea



Biografia



Urrusula auzoko Errotan jaio zen 1941ean. Ama Araozkoa zuen, Txantonena baserrikoa, eta aita Errotakoa bertakoa zen, nahiz eta haien aurrekoak ere Araoztik etorriak izan. 7 anai-arreba ziren. Sei urte ingururekin hasita, Urruxolako eskolan ibili zen, baina sarri ez zen joaten eskolara baserrian lanak egin behar izaten zituelako. Gerora maristetan ere ibili zen, baina oso gutxi. 13 urterekin basoan hasi zen lanean, harik eta soldadutzara joan zen arte. Santa Cruz de Tenerifen egin zuen soldadutza. Handik itzuli zenean pila-fabrika hasi zen lanean, eta bertan jarraitu zuen 58 urterekin erretiroa hartzeko aukera izan zuen arte. Urruxolako errotan "uratzak" (ur sufretsuak) eta bainuak umetatik ezagutu ditu. Amonak eta amak bainuak prestatzen zituzten eta udazkenean jende asko etortzen zitzaien tratamentua hartzera. Jose Luisek umetatik izan du ardiekiko zaletasuna eta artzain-txakur txapelketetan ere ibilia da.

Zintak

ONA-080

- **Proiektua:** Deba eskualdeko ahotsak - Oñati
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-03-09
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa

ONA-081

- **Proiektua:** Deba eskualdeko ahotsak - Oñati
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-03-09
- **Iraupena:** 30 min
- **Euskarria:** MiniDV

ONA-293

- **Proiektua:** Artixa Kultur Elkartearen elkarriketak
- **Elkarriketatzalea(k):** Fernandez, Joxe - Igartua, Tomas - Kortabarria, Mielanjel
- **Data:** 2023-05-18
- **Iraupena:** 67 min
- **Euskarria:** Audio digitala
- **Emalea:** Altuna Erle, Roberto

Pasarteak

1. Urrexolako Errotan jaioa

- **Erref:** ONA-080/002
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:02:32. **Bukatu:** 00:05:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Jose Luis Urrexolako Errotan jaioa da. Errekatik beste aldera badaude Urrexolako terrenoak, Uribarrikoekin muga egiten dutenak. Garagaltza eta Zañartu arteko mugak ez daude oso argi Jose Luisentzat.

2. Arbasoak Araotzetik etorritakoak

- **Erref:** ONA-080/003
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:05:43. **Bukatu:** 00:08:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Jose Luis Madinabeitia Uriarte du izena, eta ama Araotzekoa zen, Txantonena baserrikoa. 1941ko apirilean jaio zen. Bere aita umea zela bizkarrean ekarri zuten Urrexolako beste baserri batetik Errotara, familia etxetik aldatu zenean. Aitajauna Araotzetik etorritakoa zen.

3. Errotan errotarik ez

- **Erref:** ONA-080/004
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:08:13. **Bukatu:** 00:10:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Baserría » Baserriko lanak » Errota
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aitajauna Errotara bizitzera etorri zenean, hiru etxebizitzako etxe zabal bat zen, terrenorik gabekoa. Pitinka-pitinka etxe osoa bereganatu zuen, terreno batzuk erosiaz bat. Jose Luisen aitak Zerrajeraren Olateko zentrallean egiten zuen lan. Denborarekin lanari utzi egin zion. Jose Luisek ez zuen bere etxeko errota lanean ezagutu. Lamiategi eta Zuazolako errotetara eramaten zuten astoan etxeko garia ehotzera.

4. Lantegian hasi behar lanean

- **Erref:** ONA-080/007
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:13:14. **Bukatu:** 00:15:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Behin behorak gainetik bota zuen lurrera. 8-10 ganadu-buru egoten ziren Errotan. Soldaduskatik etorri eta gero pila lantegian hasi zen lanean.

5. Lantegira ezin moldatu

- **Erref:** ONA-080/008
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:15:48. **Bukatu:** 00:18:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

13 urterekin hasita zegoen basoan lanean. Bost negu egin zituen basoan lanean, uda partean aitarekin etxean jarduteko. Basoan garbiketari eta pinu sartzen ziharduen. Soldaduskatik etorri eta laster lantegian hasi zen eta jubilatutako arte egon zen bertan. Asko kosta zitzaion lantegira moldatzea, txorikumeak kaiolara bezala, baina handik dirua zetorren eta baserritik ez. Etxean ganadua gutxitu egin zuten.

6. Baserria aitajaunarengandik zuzenean berarengana

- **Erref:** ONA-080/009
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:18:29. **Bukatu:** 00:21:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ekonomia eta industria » Lantegiak

Laburpena:

Dozena bat urte hainbat lanpostutan jardun eta gero, lantegiko gau-zaintzan ekin zion. Oso ordutegi txarra zuen eta azkenean bera nekatuta zegoela enpresak aurretiko erretiroa eskaini zion, eta 58 urterekin etxean geratu zen. Errotan aitajauna zen baserritar petoa; aita ez hainbeste. Aitajaunengandik berarengana pasatu zen baserriaren ardura.

7. Bainuetxea Errotan

- **Erref:** ONA-080/010
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:21:07. **Bukatu:** 00:23:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

<p>Ur sufretsuak ere badaude Urrexolako Errotan. Etxe inguruko putzu batetik etxeratu zuten ur hori hodi bidez, eta etxearen zati bat egokitu zuten jendeak bainuak hartzeko. Amandreak prestatzen zituen bainuontziak, uraren tenperatura neurtuta. Bainuontzi bi eta bi oheko gelatxo bat zuten bainu-hartzaileentzat.</p>

8. Ostatudun bainuetxea zen

- **Erref:** ONA-080/011
- **Iraupena:** 0:03:22. **Hasi:** 00:23:47. **Bukatu:** 00:27:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

<p>Errotan ostatua hartzen zutenek goizean hartzen zuten bainua; ondoko gelan izerdia bota eta gero gosaldutik egiten zuten. Bi bainuontzi zeuden eta bainuak 15-18 minutukoak izaten ziren. Bainuen prestaketak amonak lehenengo eta amak gero egiten zituzten. Errotako logelak betetzen zirenean, Olateko osabaren etxean egiten zuten lo bezeroek.</p>

9. Bainuak sendatutako gizona

- **Erref:** ONA-080/012
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:27:09. **Bukatu:** 00:29:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Baziren herritik espresuki bainua hartzera etortzen zirenak ere, bizikletaz. Erreumak bihurritutako Torreazoko gizon bat astoak tiratutako organ etortzen zen bainua hartzera. Denborarekin, bizikletaz joateko gai izan zen. Antsolopetegitik ere etortzen zen beste gizon bat bizikletaz.

10. "Bederatziurrena" bainuetxean

- **Erref:** ONA-080/013
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:29:25. **Bukatu:** 00:31:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Bost, zazpi edo gehienez 9 bainuko tratamenduak izaten ziren. Jose Luisen ustez, inongo gaitzik gabe batzuek Errotan "bederatziurren" ederra pasatzen zuten, euren etxeetan lan pilak emaztearentzat utzita. Baina beste batzuk benetan erreumak okertuta etortzen ziren.

11. Emakumeak finagoak gizonak baino

- **Erref:** ONA-080/014
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:31:56. **Bukatu:** 00:34:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Bainuetxera etortzen ziren gizonetakoek jan eta edan besterik ez zuten egiten. Emakumezko batzuk, ordea, ahal zuten neurrian baserrian laguntzen saiatzen ziren. Arropak zorro batean sartu, makila baten puntan eseki eta sorbaldan hartuta, inguruetako herrietatik ere etortzen zen jendea bainuak hartzera.

12. Bainu osasuntsuak

- **Erref:** ONA-080/015
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:34:09. **Bukatu:** 00:36:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

Laburpena:

Bainuetxean atzerritarrik ez du gogoan Jose Luisek. Tratamenduak eraginkorrak ziren, dirudienez. Nahiz eta orduan asegururik ez egon, baziren medikuaren aginduz joaten zirenak ere. Auto istripu batean ama, anaia bat eta arreba bat hil zitzaizkion eta orduan utzi zioten bainuak emateari Errotan.

13. Bainuak udazkenean hartzen ziren

- **Erref:** ONA-080/018
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:41:05. **Bukatu:** 00:43:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Bainuak hartzeko garaia udazken aldera izaten zen. Jose Luisek umetan gogoratzen da familiak belar gainean lo egiten zuela batzuetan, bainu hartzaileentzako logela gehiago eduki ahal izateko. Bezeroek jatorduak Errotan egiten zituzten. Hostoa eroriaz batera gure osasuna ahuldu egiten omen da, eta horregatik izan daiteke udazkenean bainuak hartzearena.

14. Erlakaiztenen misterioa

- **Erref:** ONA-080/019
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:43:25. **Bukatu:** 00:46:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Bainuarena diru-iturri bat zen Errotarentzat. Bainuaz gain, atsedean ona hartzen zuten bezeroek, oporraldi antzeko bat. Jose Luisek dio kantuan eta bertsoan ere ibiltzen zirela bezero batzuk. Behin erlakaizten bat zuen gizon bat etorri zen bainuak hartzera. Bainua hartu eta gorputz osoa bete zitzaion erlakaiztenez. Arropak ezin jantzita geratu zen, baina handik gutxira erlakaizten guztiak ezkutatu zitzaizkion betirako.

15. Ukuiluan egin zioten "ebakuntza"

- **Erref:** ONA-080/020
- **Iraupena:** 0:05:17. **Hasi:** 00:46:16. **Bukatu:** 00:51:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:

Jose Luisek behin izan zuen erlakaiztena, soldaduskara joan aurretxoan. Aulki batean eseri eta ukuiluko zutabe batera sokaz lotu zuten bere lagunek. Orduan Telesforo "Moño"kuak "ebakuntza" egin zion: bizarra kentzeko labainarekin erlakaizten hori atera ondoren, zauria lixibarekin erre zion. Harrezkero ez du gehiago erlakaiztenik izan. Gaur egun ezingo zen horrelako "ebakuntzarik" egin, baina orduan pentsatu bezain azkar egin zioten. Lanegun bat besterik ez zuen galdu Jose Luisek bere erlakaiztenagatik. 20 urte zituen orduan.

16. Jose Luisen neska-laguntze kontuak

- **Erref:** ONA-080/021
- **Iraupena:** 0:04:12. **Hasi:** 00:51:33. **Bukatu:** 00:55:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Gaur egun bere emaztea denarekin (Otañui Txikiko Felisa) neska-laguntzen

metro erdi aparte joan behar izaten zen. Gero etxera Urtiagaingetik behera plomadan jaisten zen. Araotzera neska-laguntzera joan zen batean harrika hartu zuten araoztar batzuek.

17. Egun batean bi neska-laguntze

- **Erref:** ONA-080/022
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:55:45. **Bukatu:** 00:58:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Orduko neska-laguntzeetan neska ukitu ere ezin zen egin. Aretxabaletako Goroeta auzoko Santiago jaietara joan eta egun berean bi neska-laguntze egin zituzten berak eta Zubillagako beste lagun batek. Bigarrenetik itzuli eta gero, goizeko laurak aldera bakoitza bere etxera itzuli behar.

18. Gerra osteko gosea ez du gogoan

- **Erref:** ONA-080/024
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 01:01:29. **Bukatu:** 01:02:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Ez du gogoratzen gerra osteko gose garaia. Garai hartan bere ama umea erditu berri zegoela aldeko baserritik esnea ekartzen ziotela eta horrelako kontuak entzunak ditu. Garia udaletxera eraman beharra bai du gogoan.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-02-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com